

PRENTSA OHARRA

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO SEKTOREETAKO ENPRESEK %22ko ENERGIA AURREZTEN DUTE

- *Laguntza eta gizarte zerbitzuetako sektoreetako egoitza eta ikastetxeek **%22ko energia aurrezteko potentziala dute.***
- *Energia aurrezte hau 211 tona petrolioren balikidea da, 1.571 petrolio kupelen baliokidea hain zuzen.*
- *Txostenaren emaitzak Gipuzkoako Bazkondeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Aurrezpen eta Eraginkortasun Energetiko Programan biltzen dira.*

Donostia - 2015eko Irailaren 22a - 2014 urtean zehar eta Aurrezpen eta Eraginkortasun Energetikoaren programaren barruan, Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxa Ekoguneak eta ADEGIk **aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko 18 diagnostiko egin dituzte**, lurraldeko enpresen energia kontsumoa gutxitzeko eta aurrezteko helburuarekin. Diagnostiko hauekin batera eta 6 hilabetetan zehar prestakuntza ekintzak, benchmarkinga eta asistentzia teknikoa egin dira.

Programa laguntza eta gizarte zerbitzuetako sektoreetako egoitza eta ikastetxeei zuzenduta dago. 59 eta 944 bitarteko erabiltzaileak dituzten enpresak izan dira programan parte hartu dutenak eta 969 metro karratu eta 5.998 metro karratu bitarteko azalerakoak.

Parte hartu duten enpresek energia elektrikoa kontsumitzen dute beste energia mota batzuekin bateratuta (gas naturala, gasolioa, propanoa eta biomasa) eta egindako txostenaren emaitzaren arabera **antzman den aurrezte potentzial energetikoa %22koa izan da**. Aurrezte hau 221 petrolio tonen baliokidea da, 1.571 petrolio kupelen baliokidea hain zuzen.

Enpresek, proposatutako neurriak hartuz gero 1.804 tona CO2 atmosferara isuritzea ekidiko lukete, kantitate hau 163 familien kontsumoak urtean produzitzen duen CO2 kantitateari dagokio.

Planteatutako aurrezpen energetikoa lortzeko egin behar den inbertsioa 3.100.000 eurokoa da, 172.000 euro batezbesteko enpresa bakoitzeko. Eta urtean lortutako aurrezte energetikoak 326.300 euroko aurrezte ekonomikoa suposatzen du, horrela **9 urtetan enpresek egindako inbertsioa berreskuratzen dute**.



PRENTSA OHARRA

Aurreko emaitzak

Aurrezpen eta Eraginkortasun Energetikoa proiektua 2011ean jarri zen martxan, eta ordutik industriari zuzendua egon da, oraingo honetan izan ezik, 2014ean laguntza eta gizarte zerbitzuetako sektoreetako egoitza eta ikastetxeetan oinarritu da %22ko aurrezpen nabarmen bat lortuz (datu hau ohar honekin batera aurkezten den txostenaren emaitza da). Aurreko urtetan, 2011ean proiektua martxan jarri zen urtean, metalmekanika industriaren sektoreari zuzendua egon zen, txiribilez abiatutako industria mekanizatuari, hain zuzen, aldi hartan %4,7ko aurrezpena lortu zen energia kontsumoan. 2012an, makineria fabrikatzaile industria sektoreari zuzendua egon zen eta %5,2ko energia aurreztea lortu zen. 2013an lortutako aurrezpen energetikoa berriz, %4,6koa izan zen, materia plastikoen eta kautxu transformadoreen sektoreko enpresetan, burdinola sektorekoetan, estanzazioan, enbutizioan, trokelaketan, ebaketa eta errefusatuan, galdaketan eta elementu metalikoko fabrikazioko enpresetan.

Txosten osoa, Gipuzkoako Foru Aldundairen web gunean:

<http://www4.gipuzkoa.net/MedioAmbiente/gipuzkoaingurumena/eu/noticia.asp?idNoticia=419>

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347